

- **Entzutekuak:** Erresidentziako bolondres taldeari elkarrizketa
- **Kirola:** Joseba Garciak Gorlara igoera jokatu du

soraluzeko
hamabostekaria **221.** alea
2010eko maiatzaren 14an

pil-pilean



MAITE KINTANILLA
Saharako bizipenei begiratua

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soraluze • Tel. 943 75 25 67



Ekintzailearen
Eguna

Maiatzak
20
Eibarko
Debegesaren
egoitzan

- 18:00-18:15 Parte-hartzaileei harrera.
- 18:00-18:30 Debabarrena Ekinean! Enpresen Azokari bisita.
- 18:35-18:40 Ekitaldiaren hasiera.
- 18:40-18:50 **Ongi-etorria**, Eibarko alkate **Miguel de los Toyos** Jaunaren eskutik.
- 18:50-19:30 **Business Angels Euskadin**, enpresa proiektu berriak finantzatzeko eta inbertsio pribaturako modu berriak. Hizlariak:
- Josean Arratibel BAN Euskadi ADEGiko kudeatzailea.
 - Iñaki Azpiazu BAN Euskadiko aholkularia.
- 19:30-19:50 Eskualdeko enpresa esperientzia berritzaileak:
- Lizzura— Luxury and elegante for pets
 - Aupa mediku-estetika zentroa—teknologia berriak.
 - Ana Quilez— Quill Events.
 - Proyecto Gilco Protections—Makinariarentzako babes sistemak.
- 19:50-20:00 Debabarrena Ekinean! eta Bai Industriari! errekonozimenduak.
- Sarrera: Debegesako baloreen proiektuaren gaineko hitzaldia, **Juan Ángel Balbás** Debegesako Zuzendari Nagusiaren eskutik.
 - **Iraunkortasuna** edo nekaezintasuna.
Saria emango du: Soraluzeko alkate Jose Luis Arizaga Jaunak.
 - **Taldean lan egitea**.
Saria emango du: Ovidio Campello, Elgoibarko Udaleko Mahai Sektorialeko Lehendakaria.
 - **Plus Ekimena**.
Saria emango du: Mertxe Garate Eibarko Udaleko Industria, Enplegua eta Merkataritza Batzordeko Lehendakaria.
 - **Bai Industriari!**
Saria emango du: Caja Rural de Navarra zonaldeko arduradun Nuria Delgado Andereak.
- 20:00-20:10 Ekitaldiaren amaiera eta luncha.

ekiozu
jarri zure ametsak lanean

ezagutza
zure bazkidea da

sormena zure energia da

Antolatzaileak:

Debabarrena
Ekinean!

Debegesa

Debabarrenako Garapen
Ekonomikoko Elkartea
Sociedad para el Desarrollo
Economico de Debabarrena

Babeleak:





OSKAR ELIZBURU



MAITE ETXEBERRIA

MAJUA TIPOA, EZTON?

Epa, Maite.

Bizitza erdixa euskeriaren normalizaziñuaren alde emon dogunok noizian behin entzun behar dittugunak entzutia be badon ba beltza! Emoten dabenez, lehendakari barrixak euskeria ikasten jihardun; eta demaseko denbora pillua emongo jon horretan! Bestela zela ulertu, ba, 36.000€ko aurrekontua eukitzia horretarako?

Irakaslia, baina, gu baiño hobia izan behariko don, ikasle bakarria eukitta horrenbeste kobratzen bajon! Ez don AEKkua izango! Goguan al dauzkan AEKko aspaldiko urte harek? Goguan al dittun ordutegixak, zenbat talderekin ibili bihar, lau txakur irabazteko zenbateraiñoiko kontrola, ikaslien asistentziaren araberrako dirulaguntzak, kotizatu barik emondako urtiak...? Goguan al daukan jentiaeren atzian ibili beharra, ikuskatzaillia zetorrenian klasiaren egoteko? Goguan daukan arratsaldeko 8etan, maiatzian (kopako partidua telebisiñuan zeguan egunian bertan) zelan etorri zan ikuskatzaillia eta bertaratutako lau katuen araberrako subentziñua jaso genduala?

Ba, dana aldatu don! Emoten jon haien estiloko kontrolik ez dala gehixago egingo (a zer lasaitasuna, ikuskatzaillerik ez! Ahalegiña eta helburua baloratuko jittune eta behar beste diru erabiliko jone euskalduntze orokorra lortu artian!) Hori don, behintzat, neku ulertu nebana aurreko batian Lopezi entzundakuan! Lasai-lasai bota jonan: ikasten dabillela, nekeza dala baiña denboriakin ikasiko dabela, horretarako aurrekontu ederra daguala, piper ugari egiten dabela... Barretxua be egin jonan, gaiñera, azken hori esandakuan! Giro polittan ikasten! Majua tipua, ezton? Euskararendako sasoi hobia jatonaz, ezton?

Goguan hartzeko

“Euskarari hegala guztiak ikasi arte urkatu beste guztiak egin behar ditugu”
“Gerantxu” Euzkadi astekaria

Ene! Noizko kontuekin hator oraingoan? Hor aipatzen dittuaz batzuk gogoan jauzkat, beste batzuk, ostera, erdi galduta. Badakik, memoria selektiboaren lanak dittuk horrek, bizipen batzuk ondo txertatuta gelditzen dituk, eta komeni ez jakuzenak nebulosan.

Goguan jauzkat batez be euskara ikastera etortzen zen jendea. Euren ahalegina, poza, nekea, ikuskatzailearen txostena eta euskaltegiak jaso behar zebanan arteko loturaren gaineko azalpenak, ezer jakin barik hasi eta euskaraz komunikatzeko gai izaten bukatzen zebanak ikusi eta sentitzen genduan satisfakzioa.

Satisfakzio galanta lortuko jok Lopezek euskara ikasteari behar den moduan heltzen bajotsak. Baina ez jakixat nik, komunikabideen aurrean piper ugari egiten dabela esaten dabena irrifarrea ezpainetan dabela, ez ete dabilen piper horiek justifikatzen. Berdin jokatuko leuek ikasten dabilena jendaurreko komunikazio eta protokoloa edo kudeaketa saioak balituz? Ezetxean najaok.

Oraindik orain, sasoi hartako euskaltegiko ikasle batzuk kalean ikusi eta eurekin euskaraz berba egiteak nahi dabena lortu egiten dabela erakusten jostak. Eta hementxe egongo gaittuk lehendakarixak euskaraz noiz egin zain. Arrazoiak topatu behar jittuk horretarako: materialak, espirtualak, kulturalak, hizkuntza bat jakiteak dakarren aberastasanarekin lotutakoak edo dena delakoak. Hemen eta mundu guztian, agintean dagoenak bere komunitatearen beharrak asetu behar jittuk, eta bere hizkuntzan komunikatu, hortxe jaok gako! Euskararentzako sasoi hobeak etorri etorriko dittuk...aurrerago.

Ikasle bakarria eukitta horrenbeste kobratzen bajon, ez don AEKkua izango!

Oskar Elizburu

Agintean dagoenak bere komunitatearen beharrak asetu behar jittuk

Maite Etxeberria



GUTUNAK

Hiriber programa

Eusko Jaurlaritzak 2010eko otsailaren 24an agindu berri bat plazaratu zuen. Agindua Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, lehentasunezko esku hartzeko auzoak eta hiri eremuak hobetzeko diru laguntzen "Hiriber Programa" arautzen duena da.

Programa honen helburua, lehentasunez esku hartzeko auzoak eta hiri eremuak hobetzeko laguntzen programa arautzea da. Soralezeko udal gobernua 2 proiektu aurkeztu ditu programa honi dagokionean. Zeleta auzoko eta Atxuri kaleko zahar-berritze lanak. Martxoaren 15ean izandako hirigintza batzordean gure taldeak erregetxe-

ko lur azpiko aparkalekuaren proiektua aurkeztea proposatu zuen. Udal gobernua ordea aurretik aipaturiko bi proiektuak aurkeztu ditu, guk egini-ko proposamena ez duelarik kontutan eduki. Pentsatzen dugu % 75 finantziatzen duen programa honen bitartez posible zela Erregetxeko lur azpiko aparkalekuei bultzada bat ematea, baina zoritxarrez ez da posible izan. Pentsatzen dugu, lur azpiko aparkalekuen proiektuaren inguruko eztabaida serio eta bideragarri bat egin beharrean gaudela. Espero dugu aurretik ditugun hilabeteotan udal gobernua eztabaida honi helduko diola. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com helbidean.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehien gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehien 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldukatua, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitze gutuna jaso den data kontuan izan-

go da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.

- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, "herriko jubilatutako batzuk" edo "auzokide batzuk" edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **beltzekorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Unai Larreategi
Europa kiebran?

Egoera ekonomiko orokorra ez omen dago txantxetarako. Lehenengo atzeraldi ekonomikoaz hitz egiten hasi ziren, gero krisiaz eta orain hara non estatu batzuk zorrak ezin ordainduta kiebrara joateko arriskuan omen daude.

Munduan ematen ari den berrantolaketa ekonomikoan bere botere kuota ezin mantenduta ageri direla orokorrean europar estatuak. Baina berkokatze horri "kiebra" abizena jarri al dakioke? Gu kiebran bagaude zein da hirugarren mundua deitzen diogun horren egoera?

Espekulatuzaileek agintzen duten mundua eraiki dugu. Ekonomilariak egun batean burtsa %10 jaisten dute eta hurrengoan %14 igo, konstruktoreei egun batean zure etxebizitza egiten hasteko aurrerapena ematen diezu eta hurrengoan desagertu egiten dira zure diruarekin, politikoei AHTa egiteko nahiko diru dagoela diote baina laguntza sozialetarako murrizketak egin behar direla. Sistema hau horrelako jardunek, lapurretekin mantentzen dute.

Baina herritar soilok ere badugu erru pixkat ala? Munduko aberastunaren banaketa desorekatuaren aurrean karitatea eskaintzearekin geure buruak zurutu eta lasai gelditzen gara. Prest al gaude kontsumoan oinarritutako gure bizi maila jaitsi eta benetako beharra dutenekin orekatzeko?

Aldaketa hori emateko prest ez bagaude etor daitezela krisi, kiebra eta gosete handiak, besterik ez dugu merezi eta.

Mesedeetako Amaren Egoitzako bolondres taldea

Zegaittik egin zarie bolondres?

Gutako askok 32 urte dihardugu bolondres lanetan. Hasieran garbitzera eta etxia atontzera etortzen ginan lan zikinak egittiaz nazkatu ginan arte. Orduan txokolatadak egitten hasi ginan gure diruakin eta etxetik ekarritako ontzixekin. Danera 130 pertsona batzera heldu ginan. Gero, txokolatadia egitten zebenak nagusitu eta bolondresen gainbeheria etorri zan. Zaharren Egoitzan jende nagusi asko zeguan eta bolondres gazte gutxi. Gu nagusixen premiña afektibuak betetzen ahalegintzen gara.

Zein da bolondresen egittekua?

Norberak daukan onena eskaintzen ahalegintzen gara eta herriko kontuen barri be emoten dotsegu. Batzuek kartetan jolasten dabe, beste batzuek binguan, astian behin eskulan tailerra egitten dogu eta asko gozaten dabe. Abestu, dantzan egin, margotu, orraztu, makilatu, berba egin, pa emon eta maitte, askok maillasun faltia dauke-eta.

Zeeze falta da Erresidentzian?

Leku falta haundixa dago. Ait-titta-amama asko ez dira egoitzatik urten urtietan, zer gutxiago pasealeku haundixagua egittia baino. Askok ez dabe bost urtian

((ENTZUTEKUAK))



herrixa zapaldu edo ez dabe Zubi Nagusixa barrittuta ikusi.

Zeintzuk dira datozen hilabeteetan egingo ditzuzuen ekimenak?

Ahalik eta urteera gehixen egingo doguz. Eguraldi onakin herrira jeisten hasiko gara, kafetxua hartu eta herrixan zihar paseuak emotera. Bestela udan Debara jua ten gara edo Donostiara traineruak ikustera.

Zegaittik animatu bolondres lanak egittera?

Erresidentziako egoeria ezagutu eta gizatasuna lantzeko aukeria dago hemen. Errealitatia ezagutu, baloriak aldatu eta gauza txikixekin gozatu biharra daguala erakusten dau leku honek. Izena emon nahi dabenak, 943 751136ra deittu deixela.

"Gauza txikixekin gozatu biharra daguala erakusten dau leku honek"

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HÑOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Igogailuaren lanak gelditzeko eskatu du oposizioak

Maiatzaren 5eko Udaltzarrean EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek mozioa aurkeztu zuten Gabolatsetik Estaziño kalera helduko den igogailuaren lanak gelditzeko eskatuz. Mozioa onartu egin zen; modu testimonialean baino ez, osteran, lan hauek alkatearen eskuduntzakoak direlako.

Auzokideen kexuei bide emanez Hiru alderdiek azaldu zuten, aipatutako kaleko bizilagunen kexei bide emateko ipini zuten mozioa. Igogailua bi etxaurreren artean igaroko da eta etxaurre horietako bateko leihoak igogailura begira geratuko dira. Hainbat bizilagunek idatziak aurkeztu dituzte eta hirigintza batzordeetan parte hartu dute, igogailua inpaktu handiegia dela iritzita. Udal Gobernu Taldeak adierazi du igogailuaren lanen dirulaguntza eskaera, kontratazioa eta obren esleipena hiru aldiz pasatu dela Osoko Bilkura ezberdinetatik eta hiruretan aho batez alderdi denek onartu dutela. Azkenean, 2010eko martxoaren 10ko Udaltzarrean obren hasiera aho batez onartu zutela ere aipatu du Udal Gobernu Taldeak.



Hainbat bizilagun igogailua ipintzearen aurka agertu dira.

Plaentxi Motoclubaren urteurrena

Ekainaren 13an 13 urte beteko ditu Plaentxi Motoclubak. Goizeko 09:30etik 11:00etara babajanerako izen ematea zabalik egongo da Bolia tabernan (10 euro balioko du tiketak). 11:30ean errepide bazterreko babesen kontrako motor ibilbidea egingo dute Soraluzetik irtenda. Ibilbidea: Soraluze, Eibar, Ermua, Zaldibar, Berriz, Elorrio, Kanpazar, Arrasate, Bergara, Osintxu eta Soraluze izango da. Jarraian babajana egingo dute.



1954an jaiotako bazkaria

Ekainaren 12an 1954an jaiotako bazkaria egingo dute Txurruka jate-txean. Antolatzaileek bazkaria eguerdiko 14:30ean izango dela jakinarazi dute eta izena Txurrukan bertan eman behar dela, 943 75 15 81 telefonoan, maiatzaren 30a baino lehen.

Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzea

Udalbiltzaren zilegitasuna eta auzipetutako 22 pertsonen elkartzasuna adierazteko asmoz, apirilaren 29an "Bai Udalbiltzari eta bai Euskal Herriri" lemapean elkarretaratzea egin zuten 50 herritar inguruk.

Zuzenketa

Zuzenketa: Elisa Labaienek aurreko alean bere ahotan ipinia zuzentzeko eskatu digu, bere hitzekin:

Pozgarria da nere lana estimatzen daben jende asko dagoela. Eskerrik asko

Elisa Labaien

Auzo alkateak

Soraluzeko baserriarren artean auzo alkateak aukeratu dituzte. Txurruka auzoan Iurdana Laskurain izango da ordezkaria, San Andres auzoan Roman Maiztegi, Iruren Aitor Oregi eta Ezozki auzoan Olatz Larreategi. Baserriarren eta udalaren arteko harremanak lantzeaz arduratuko dira.





MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Maiatzaren 15a Pil-pilean Eguna

Maiatzaren 15erako deitu ditu Pil-pilean Euskara Elkarteak bere bazkideak elkartaren eguna ospatzera. Elkartaren egitasmoen berri ematek haruntzago joanda, euskaldunok euskaraz bizitzeko ditugun aukerez eta oztopoez eztabaidatu nahi dute, euskaldunok egunerokoa hizkuntzaren arloan ditugun jokabideez hausnartu. "Euskaraz deseroso?" izeneko tailerra antolatu dute horretarako. Horren harira dator Pil-pilean Elkartaren Egunerako aukeratutako leloa: "Euskarasutra: Euskaraz bizitzeko hamaika postura". Bazkideen bazkaria egin ostean, Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzera joango dira Iruñeara.

UEUko ikastaroetan parte hartzeko laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak 38. Udako Ikastaroak antolatu ditu ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitartean Eibar, Baiona eta Iruñean. Ikastaro hauetan parte hartzeko matrikulazioa zabalik da dagoeneko, ekainaren 20ra arte. Sorluzeko Udaleko Euskara Zerbitzuak ikastaro hauetara joateko laguntzak ematen dituela jakinarazi nahi die herritarrei, matrikula-kostuaren %50 ordainduz. Informazio gehiago: 943 82 14 26 telefonoan, ikastaroak@ueu.org edo www.ueu.org orrialdean.

Elkarbizitza Eguna L.H. Eskolan



Maiatzaren 28an Elkarbizitza Eguna ospatuko dute Lehen Hezkuntzako ikastetxean, ikastetxeko kolektibo guztien arteko harremanak sendotzeko helburuarekin.



Sei urteko kartzela zigorra Regina Maiztegi plaentxiarrari

Auzitegi Nazionalak 2003an "badaezpadako operazioetan" atxilotutako hamairu lagunetatik zortzi absolbitu egin ditu; beste bostak ordea, zigortu. Tartean Regina Maiztegi sorluzetarra dago. Mikel Garaiondo eibartarra eta Alberto Gonzalezekin batera, sei urteko kartzela zigorra jarri die ETArekin kolaboratzea egotzita. Beste biei, Zugaitz Izagirre eta Carlos Martini, zazpi urteko kartzela zigorra ipini die ETAko kide izatea leporatuta. Duela 7 urte, 2003an atxilotu zituzten denak, "badaezpadako operazioan". Maiztegi bi urtez egon zen kartzelan eta torturak salatu zituen. 2009ko abenduan epaitu zituzten.

Elkartasun Eguna ekainaren 5ean Herriko Euskal Preso eta Iheslariari babesa eta elkartasuna eskaintzeko asmoz, Elkartasun Eguna antolatu du Sorluzeko Elkartasun Eguneko lan taldeak. Grafitiak, joaldunak, haurrentzat jolasak, puzgarriak, bazkari herrikoia eta ekitaldia izango dira besteak beste. Kontzertuak ere ez dira faltako. Egunez, Puskaila & Uekillo, Kaosarenasoak, Klabo Oxidado, Napoka Iria eta Elektro Txaranga taldeak arituko dira eta gauz berriz, Armyarma, Oren bi, Governors, DJ Papi eta Titino talde eta DJak. Bazkarirako tiketak 20 euro balio ditu eta Gaztelupe, Arrano eta Gila tabernetan daude salgai.



Herriko eragile eta norbanakoek 2009ko maiatzean preso politikoei elkartasuna adierazi zieten.



ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua





PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORLUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



Bi herri





urrintzi bat



Maite Kintanilla soraluzetarra Argeliako kanpamentuetan izan da bi hilabetez. Heziketa Bereziko ikasketen praktikak egin ditu bertan eta urritasunen bat duten pertsonekin proiektuak landu dituzte. Indartsu itzuli da Maite, laguntzen jarraitzeko ilusioz beteta: "Orain Euskal Herritik lan egitea tokatzen da", dio.

Maiteri elkarrizketa Plaentzia.comen.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Urtebete bete du Patxi Lopezen gobernuak Ajuria-Enean.

Aldaketarik igerri dozu sozialistak gobernuan darenetik?

PEDRO ELIZBURU
Jubilaua



Nik ez dot kanbixorik igerri. Lelengo gauzia presuen erretratuak kentzia izan zan, egun batetik bestera gainera. Euskerian aldetik berriz, ez dot uste gobernuak ezer egin dabenik.

JOSE MARI ARRARAS
Zabor bilketa arduraduna



Aldaketia egon da bai, baina ez onera. Pixkat orokorrian igerri dot, ez dakit azaltzen. Esate baterako, telebistan ikusten da aldetia eta euskalgintzari be orokorrian kalte egin dotsa.

ARANTXI PEÑALBA
Administratzailea
MARIAJE ARANBURU
Etxekoandria



Aldaketarik ez. Euskerian kontuakin txarrerera egin dau. Gure ustez elkarrizketa gehixago egin beharke leukie konponbidia lortzeko. Aldaketak egin dira, baina gure ustetan, txarrerera.

MARIA DAVILA
Langabetua



Nere ustez txarrerera, baina ez bere erruagaittik, Europako krisixagaittik baino. Urtebetian aldetia igertzia zaila da, baina alkarrizketa asko egin da eta konfiantza boto bat emon beharke gontsake.


MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
BERGARA

ATE IREKIAK

Ikastetxea ezagutu nahi baduzu Maiatzaren 29an, goizeko 11etan, zabalik izango duzu.

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

MATRIKULA
Uztailaren 7tik 13ra

Telf: 943 76 38 40 / 943 76 24 91 Email: imaltuna@sarenet.es

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurrutia
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81



Euskal Jaian umeak etxean hartzeko

Aurten 40. urtea beteko du Haurren Euskal Jaiak Ekainaren 6an. Bailarako 200 ume inguru etorriko dira dantzara. Euskal Jai Batzordeak deialdia egin nahi die herritarrei umeak etxean har ditzaten bazkaltzen emateko. Izena emateko Pil-pileanera jo edo deitu 605752533 zenbakira.

Estilo guztietako musika eta antzerkia

- **VentosdeSaudade:** gaur 22:30ean fado talde soralezetarrak kontzertua eskainiko du Zinean. Sarrerak 5 euro balio du.

- **Xurdir antzerki taldea:** bihar 17:00etan Zinean. 3-9 urteko haurrentzako abestiak, dantzak eta jolasak uztartzen ditu. Dohainik.



- **Punk taldeak:** bihar 22:00etatik aurrera Gaztetxean. Bergarako Patinazo de neurona eta Extorsion eta Eibarko Garrapata taldeek joko dute.

- **Lord Witch:** maiatzaren 28an 22:00etatik aurrera Zubi Nagusian, Keixeta Guraso Elkarteak antolatuta.

IX Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen txapelketa jokatu da gaur

Plazetan tokirik ez zuten bertsolari gazteei lekua egiteko bide bila hasi zen duela bederatzita urte Mutrikuko Bertso Eskola, bailarako gaztetxeekin elkarlanean, eta 9. Edizioa du aurtengoa. Pasa den barixakuan Deban izan zen lehenengo kanporaketa eta Beñat Iguaran amasarra izan zen irabazlea. 207 punturekin finalera zuzenean sailkatu da Beñat.

Eneko Beretxinaga bertsoan

Soraluzeko kanporaketa gaur jokatu da Gaztetxean. Sei mutilez osatutako bertsolari taldean Eneko Beretxinaga soraluzeta-

rra dago eta Egoitz Unamuno epaile lanetan arituko da. Afarria 20.30ean izango da eta saioa 22.30ean. Bertsolariak: Ander Lizarralde, Eneko Beretxinaga, Ander Elortegi, Ekhi Erremundegi, Patxi Iriarte eta Aitor Urbietza izango dira.

Mendaro eta Elgoibar hurrengo geltokiak

Soraluzetik Mendarora pasako da txapelketa maiatzaren 21ean eta Elgoibarren maiatzaren 28an egingo da. Azken geltokia Mutrikuko gaztetxea izango da eta bertan erabakiko da irabazlea.



Iazko Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako kanporaketaren irudia.

TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, beheka, Soraluze. T. 943 75 17

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AUERRERA ZABALIK

GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Merkatu Plaza
20590 Soraluze t. 943 75 24 40

Juan Mari arraindegia

Joseba Garcia bere mailako onena Udanara igoeran

Maiatzaren 2an Joseba Garcia gidari soraluzetarrak proba ona egin zuen. Udanara igoeran Garcia onena izan zen bere mailan, R Taldean, 4. Klasean. 38 pilotuk hartu zuten parte frogan eta plaentxiarra 12. postuan sailkatu zen. Frogako irabazlea Aitor Zabaleta pilotu bergararra izan zen eta 28 minutuko diferentzia atera zion Garciairi.



Joseba bere lehiaketetako autoarekin.

Joseba Garciairen denborak:
1go itzulia: 03.07,75 min.
2. itzulia eta denbora onena: 03.00,44 min.

Bihar Gorlara

Hurrengo froga Gorlara igoera izango da maiatzaren 15ean eta Euskadiko Txapelketan puntuagarria izango da. 4.900 metroko bidea eta 7'8-ko batz besteko aldapa du. Ekainean beste hiru igoeratan hartuko du parte: Aiara igoeran ekainaren 12an, Zumarragara 13an eta Urkiolara 26an. Uztailaren 3an urteroko Arratera igoera jokatu du.

Herriko gimnasten erakustaldia kiroldegian

Maiatzaren 23an herriko 40 gimnastak, Eibar, Markina, Mutriku eta Urretxuko beste 140 neskekin batera, gimnasia erritmikoko erakustaldia eskainiko dute goizeko 11:30ean kiroldegiko frontoian. Adinaren arabera-

ko erakustaldiak eskainiko dituzte, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hasi eta DBHra artekoak. Informazio gehiago, gimnasiaipurua@hotmail.com helbidean.

Mendi taldeko 80 lagun Saibiko tontorrean

Maiatzaren 2an Soraluzeko mendi taldeko 80 lagun Bizkaiko Saibi mendian izan ziren. Hasierako asmoa Urbiara joatea bazen ere, eguraldiak plana aldarazi zien eta azkenean Durangaldeko mendira joatea erabaki zuten. Hurrengo irteera maiatzaren 23an egingo dute, Gorbeia.



Iturria: Ion Osinaga

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Arruti	22
Idoate – Laskurain	12

FUTBOLA

Getariako F.T. – Sora (Erreg.)	1 - 2
Sora (Erreg.) – Lazkao K.E	2 - 0
Arizmendi K.E – Sora (Jub.)	1 - 4
Urki C.D. – Sora (Kad.)	3 - 1
Sora (Kad.) – Arizmendi	6 - 2

AGENDA

PELOTA

Barixakua 14, 21:30ean Debako pilotalekuan
 Titin III – Laskurain
 Berasaluze IX – Pascual

FUTBOLA

Domeka 16, 17:30ean Argixaon
 Urola K.E. – Sora (Erreg.)

Zapatua 15, 15:30ean Estalan
 Sora (Jub.) – Eibartarrak F.T.

Zapatua 15, 15:45etan Ibarra
 Aretxabaleta K.E – Sora (Kad.)

Kooperatibako 100. urteurreneko pelota karteldegia

Maiatzaren 21ean 21:30ean, kiroldegian:

1-Soraluzeko pelota eskolako hurren partiduak (5 partidu)

2-kadeteak:

Santamaria - Kortabarria (Sor.)
 Aristi - Díez (Bergara)

3-Nagusiak:

Atxotegi - Jauregi (Soraluze)
 Muguruza - Loiola (Berg.-Elgoi.)

Gipuzkoako

Hiru Txirilo Bolo Txapelketa

Hurrengo jartialdia:

Maiatzaren 15ean, zapatua, arratsaldeko 17:00etan Lasturren.

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
 Tel.: 943 75 14 89
 20590 SORALUZE

Aras

DIN arauak jarraituz
 eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
 F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
 50 Posta Kutxatila
 20590 Soraluze



ZORION AGURRAK



Jorge Estévez Viciosa
Maiatzaren 11n 10 urte!
Zorionak sorgintxo!
Zorionak Txapeldun!
Etxekoan partez!



Pedri Lete Lacuesta
Maiatzaren 16an 57 urte!
Zorionak eta muxu handi bat
etxeko eta lagunen partez!



Eneko Alvarez Basauri
Maiatzaren 11n 5 urte!
Zorionak! Muxu handi bat
etxekoan partez.



Gely Viciosa eta Jakes Arévalo
Ekainaren 13an eta 20an
Urteak betetzen dituzelako.
Zorionak bikote, etxekoan partez!!



Mila Garcia
Maiatzaren 24an urteak
betetzen dituzulako,
zorionak amama!
Patxo handi bat
guztionez partez!



Wenpi
Zorionak prexioxa!!
Txoruana urte asko
askuan egin deizula...
Muxu haundi haundi bat
denon partez.



Miguel Asensio
Zorionak maiatzan 12xan
urtiak betezen ditzuzu eta!
Plaentxiako zure familixian
partetik.



Iruñe eta Juan A. Varela
Maiatzaren 20an eta 21ean
urteak betetzen duzuelako,
muxu erraldoi bana etxekoan partez!




Ioritz Reglero Heras
Maiatzaren 17an urtebete!
Zorionak sorgintxo!
Asko maite zaitugu.
Muxu handi-handi bat.



Egoitz Portu
Maiatzaren 12an urteak
betetzen dituzulako...
Zorionak bandera trapo!
Marta eta Ivanen partez.



Zorionak Maria
Maiatzaren 18an 3 urte!
Muxu potolo bat, Jon eta
familia guztiaren partez.



Sinfo Vega
Zorionak maiatzan 12xan
urtiak betetzen ditzuzulako!
Maitte zaituzten guztien
partez.



Joane Unamuno Ramos
Maiatzaren 9an urtebete!
Zorionak poxpolin,
etxeko guztien partez!

jaiotakoak

OIHANE RODRIGEZ ALONSO
ENARA CARRETERO DE LA CRUZ
UXUE URRESTARAZU IGLESIAS



hildakoak

LIBE GARITAGOITIA LARRAÑAGA



LEHIAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:**
Imanol Murua Uria kazetariaren Loiolako hegiak liburua

Oharra: Lehiaketako zozketa ostiral eguerdian burutuko da.

- **Irabazlea:** Ezosi Iraola

- **Iñaki Iñarra,**
Kalebarren kaleko Iñarra harategiko harakina da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldizkaria@pilpilean.com

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Soraluzeko kooperatiba



1- KOOPERATIBAKO LANGILE OHIAK

Argazki hau, 30. edo 40. hamarkadan etaratakua da eta lehengo kooperatiba zaharreko langileak dira bertan agertzen diranak.

Goixan, ezkerretik eskumara: Julia Aizpiri, Margarita Larrañaga, ezezaguna.

Behian, ezkerrik eskumara: Milagros Eizagirre, Flora Murel, Hipolita Arruti.

2- 1961EKO IRAILAN 22KO MOSTRADORIA

Argazki kuttun honetan kooperatibako mostradore zaharra ikusi leike. Pisu zaharra, erosketak apuntatzeko sasoi bateko liburua...

Ezkerretik eskumara: Carmen Arruabarrena, Pakita Larrañaga, Timoteo Urizar, Nieves Agirrezabal, Maria Eugenia Silanes eta Mari Fran Aizpurua

3- KOOPETATIBA BARRIXA INAUGURATU ZAN EGUNA

1971ko maiatzan 9xan inauguratu zan Kooperatibako eraikin barrixa. Domeka zan eta herri dana pasatu zan bertatik. Argazkixan luntzeko momentu bat.

Ezkerretik eskumara: Eva Makinai, Begoña Perez de Labeaga, Mertxe Atxa, Maria Asen Ariznabarreta eta Kontxi Silanes.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Maiatzaren 17tik ekainaren 18ra

MUSIKA TAILERRA

4, 5 eta 6 urtekoentzat

INSTRUMENTUA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA

7 urtetik aurrera

- Klarineta
- Panderoa
- Flauta
- Trikitixa
- Tronpeta
- Biolina
- Soinua
- Saxofoia
- Tronboia
- Pianoa
- Gitarra

MUSIKA MODERNOA

14 urtetik aurrera

- Bateria
- Baxu elektrikoa
- Gitarra elektrikoa
- Hizkuntza musikala helduentzat



zatoz SORALUZE MUSIKA ESKOLARA eta informa zaitez!!

Idazkaritza

Astelehena, Asteazkena eta Ostirala
15:00 etatik 17:00ra

Frontoian gaude:
telf. 943 75 15 44

e-posta: soraluze@musika.e.telefonica.net

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Enkarguz
eskatutako janaria ere
prestatzen dugu

HARATEGIA

Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49

PLACENCIA

KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

TXURITXU

Zuekin
gozatzen

943 75 24 43

Santa Ana Kalea 22 behean

Javier Alberdi

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

GILTZAK, S.L.

SARRAILAGINTZA

SEGURTASUNA

- Era gutxietako sarraila eta segurtasun kutzen **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokipenak**
- Era gutxietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atek **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91

Arrogueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com

Soraluzeko Euskal Jaixak

2010



XL. Haurren Euskal Jaixa

Ekainak 6, domeka

Debaqoienerako 200 ume dantzari kalietan dantzan
11:00etan hasita, egun osoz.

Ikastarua

Ekainak 9, eguaztena

Buruko zapixa ipintzen trebatzeko ikastarua,
Urrats Dantza Taldearen eskutik.
19:00etan Plaentxi H.I.ko aretuan.



III. Erromerixa Eguna Ezozin

Ekainak 12, zapatua

Kalejiria, dantza ikuskizuna, bazkaixa, erromerixia
egun osoz



Andoni
Egana

Ametz
Arzallus

Jen
Maiu

Maioren
Lujanbio



Gai-jartzailea:
UNAI ELIZASU

Bertso Jaialdia

Ekainak 11, barixakua

M. Lujanbio, A. Egana,
A. Arzallus eta J. Maiarekin.
22:30ean Zinian.

Antolatzaileak:



Laguntzailea:



Soraluzeko Udala